

Jai giroa nagusi
Zizurkilen, Bedaion,
Elduainen, Alkizan
eta Lizartzan ▶ 4-5



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2005-09-09 ▶ III. urtea ▶ 681. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Irri ugari eta malko gutxi eskolako lehen egunean

HASIERA ▶ Tolosaldeko eta
Leitzaldeko herri gehienetan lehen
eskola eguna izan zen atzokoa

GAZI-GOZOA ▶ Pozarren ziren
haur gehienak; gaztetxoak, berriz,
ez dira hain gustura joaten ▶ 2-3



Bi haur, atzo, Tolosan, eskolara sartzen, irribarretsu; ikasleek udan ikusi ez dituzten lagunekin elkartzeko aukera izan zuten atzo. INIGO ASENSIO

VILLABONA ▶

Elikagaien X. Azoka Berezia

Irrintzi elkarteak
antolatuta, bihar ▶ 6

TOLOSA ▶



N. LATABURU

Tolargiko subestazioa martxan jarri dute

San Esteban auzotik
argindarra eraldatu
egiten du ▶ 6

LEITZA ▶

Aspertzerik ez Ateka Beltzan ▶ 7

Plan

hasi dufen bezain
urruti heldu daitezten

Etiketako gazteenen plana

Euskadiko Kutxaren Plan Bat aurrerazi-plana 0 urteko 18 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta.

Formula horri esker, hilean 30 €-tik hasita, kapital bat osurako dugu polkanaka zure seme-alabak handitzen direnako; haien ikasketetarako, haien proiektuetarako, haien ikasketetarako, haien ikasketetarako, haien ikasketetarako...

Segurafatu haien etorkizuna

Haien lehenengo plana seguruenak izatea nahi dugu, Euskadiko Kutxan.

Plan Batetik leia egongo zara zuri zerbait gertatuz gero balabestuta egongo direla jakinda; izan ere, bi-asegurua duzue, kapitala ordaintzen jarraituko du, zure seme-alabek 18 urte bete arte.

Planak efektina emanen du bizitzan osoan

Plan Bat aurrerazi-planak gubernetiko errentagaritasuna bermatzen du; bera berrita osoan. Honekin, hasieratik jakin dezakezu zure seme-alabak zerbait diru erabiliko duen 18 urte egundakoz.

Eta, gainera, abantaila fiskalak dituzte.

Plan Bat aurrerazi-planak tratamendu fiskal ezin hobea du; izan ere, bi-asegurua duzue, planak sortutako etekinren %75 murriztu dazkeza PFEZan.

HEZKUNTZA ▶

Udako oporrei agur esan, eta berriz ere eskolara itzultzeko garaia heldu zaie ikasleei

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat ikastetxetan lehen eskola eguna izan zuten atzokoa; goiztiarrenak izan dira horiek, gainerakoak astelehenean hasiko baitira



Tolosako Hirukide ikastetxeko 6. mailako ikasleek pozarren ekin zieten herenegun eskolei; jolaslekuan harrapatu zituen HITZAK. INIGO ASENSIO

I. ASENSIO - I. ETXEBESTE

Atzokoa izan zuten Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan lehen eskola eguna —Leitzan atzo hasi ziren; Are-sano gaur hasiko dira eta Tolosako Hirukide ikastetxean herenegun joan ziren eskolara lehendabizikoz—. Udako oporrei agur esan, eta ikasturte berriari ekiteko garaia heldu zaie, izan ere, eskualdeko haurrei eta gaztetxoiei. Besteak beste, Ibarrako, Alegiako, Leitzako, Villabonako eta Tolosako zenbait ikastetxetako ikasleak izan dira goiztiarrenak aurten, beste batzuk gaur edo astelehenean hasiko direlako.

Topiko bilakatu da dagoeneko lehen eskola egunean haurrek negar egiten dutela. Alegia, gurasoak etxean utzi, eta kostata joaten direla ikastetxera. Kasu batzutan hala izaten da, baina orokorrean gustura ekiten diote umeei ikasturte berriari, batez ere, aspaldian ikusi gabeko lagunekin bat egiteko aukera izaten dutelako eta lehen egunetan normalean baino denbora gehiago izaten dutelako jolas egiteko.

Tolosako Hirukide ikastetxeko 6. mailako ikasleek, behintzat, hala diote. Andrea Fernandez de Antona tolosarrarentzat «pozgarria» izan zen lehen eskola eguna, udan lagunak ikusi ahal izan dituen arren, ez delako haiekin egoteko nahi adina denbora eduki. Lehen egunak, gainera, ez dira hain astunak izaten: «Irakasleak ezagutzeko, ordutegiak eta arauak jakitea, materiala banatzea... horrelako gauzak egiten ditugu lehen egunetan; besterik ez».

Gauza bera dio Nerea Sanzek ere. 11 urteko ibartarra «aspertu» egiten da etxean bestela, eta horrexegatik, gustukoa du eskolara itzultzea. «Oporretako lehen egunak onak izaten dira, baina azkeneko luze ere egiten zaizkit». Bihar jai eguna dute ikastetxe guztietan, eta astelehenean izango dute hurrengo eskola eguna. Baina goizez bakarrik. Goiz eta arratsaldez datorren

Ikasleak bakarrik ez; irakasleak ere eskolara berriro

I. Etxebeste ▶ Ikasleez aritzen gara beti, baina ez dira horiek ikasturte berriari hasiera eman behar izaten dioten bakarrak. Udako opor luzeen ostean lanera itzuli behar izaten dute irakasleak ere, eta aurrekoiei bezala, astun samarra egiten omen zaie haien berriro liburu artera bueltatu behar izatea.

Besteak beste, Tolosako Laskorain ikastolan izan da Hitzak lehen eskola eguna nola joan den ikusteko, eta ez diote irakasle gelan bilduta zirenek

lanera itzultzea gogorra egin zaienik esan, baina horixe antzeman dugu haien aurpegietan. Alegia, oporraldiaren ostean, maldan gora egiten direla lehen egunak.

Bakarren batek poza ere hartu omen du ikastolara itzultita. «Irakasle on arteko bilerak ez, baina ikasleak eta eskolak faltan botatzen dira azkeneko». Barre artean esan du, hori bai, eta, beraz, ez dakigu benetan ari ote den. Kontuak kontu, negar egin edo ez, lehen eskola egunak dituzte haiek ere. ◀



Laskorain ikastolako irakasle gelan bilduta zeuden atzo. INIGO ASENSIO

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

Tel.: 943 65 56 95

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2005eko abuztuaren 1ean, Solana kalea urbanizatze eta Zerkausia Birgaitzeko obrak egiteko Klausula Administrazioen agiria onartu zuen.

1. Helburua.- Solana kalea urbanizatze eta Zerkausia Birgaitzeko obrak egitea

2. Litzitazioaren zenbatekoa.- 2.051.496,80 € (BEZA barne)

3.- Lanak egiteko epea.- 10 hilabete

4.- Espedientea ikusteko.- Copizac (Gudari kalea 8, behea); telefonoa: 943 65 40 29
Kopibat (Lizardi plaza 2); telefonoa: 943 65 51 65

5.- Behin-behineko fidantza.- 41.230 €.

6.- Behin betiko fidantza.- 82.460 €.

7.- Enpresa-sailkapena.-

C TALDEA	4 AZPITALDEA	c KATEGORIA
C TALDEA	8 AZPITALDEA	b KATEGORIA
C TALDEA	9 AZPITALDEA	c KATEGORIA
I TALDEA	9 AZPITALDEA	c KATEGORIA

Kontratatari esketako zain ondorengoetako batean sailkatuta egotea: C taldea, 8 azpitaldea, 9 azpitaldea eta I taldea; 9 azpitaldea, hura ez badago horietako batean sailkatuta, obra egiteko azpi kontratatzen denak egon beharko du.

8.- Eskaintzak egiteko tokia eta epea.- Tolosako Udaltzako Sarrera Erregistroan, plaza Zaharra, 6-Bn, 2005eko urriaren 4ak eguerdiko ordu bata arte (13:00).

Tolosan, 2005eko Irailaren Bar. ALKATEA

HAURRAK

Pozarren joaten dira gehienak ikastetxera; udan ikusi ahal izan ez dituzten lagunekin elkartzeko aukera dute

GAZTEAK

Ez dira hain gustura joaten: «Udan baino goizago jaiki beharra, aisialdi gutxiago, eta, gainera, etxeko lanak»

astelehenean, hilak 19, hasiko dira ikastetxe gehienetan.

Bestelako kontua da heldua-goena. DBHko eta Batxilergoko ikasleek nekezago eusten diote ikasturte hasierari, udan lagunekin egoteko aukera handiagoa izanagatik, oporretako gorabeherak ahaztu ezinda egon ohi direlako, eta haurrek ez bezala, liburu artean murgildu behar izaten dutelako lehen egunetatik.

Laskorain ikastolako Batxilergoko 2. mailako ikasle talde batek halaxe zioen: «Oso gogorra izan da berriz ere ikastolara itzultzea: oporretan denbora libre genuen, goiz jaiki behar dugu orain, eta, gainera, lehenengo egunetik eman dizkigute etxeko lanak». Kexu dira, baita ere, honezkerok selektibitate hitza makina bat aldiz entzun dutelako. Ez dakite zenbat bider gehiagotan entzun behariko duten ikasturtea amaitu bitartean!

Leitzan ere, hasita

40 ume joan ziren atzo Leitzako haur eskolara. Gurasoekin aritu ziren jolasean, pixkanaka, egoera berrira moldatzen has daitezten. Erleta eskolako atek ere atzo zabaldu zituzten; 183 dira, guztira, aurtengo bertako ikasle izango direnak: iaz baino sei gutxiago. 27 ikasle joan, eta beste 21 sartu dira, izan ere. Nabarmetzeko modukoa da Haur Hezkuntzan gela berri bat sortu dela ikasturte berri-rako, eta, hortaz, iazko lau gela lekuan bost izango dira aurtengoan. Leitzaldean haurren kopurua igotzen ari dela esan daiteke, horrenbestez.

Alegiako Aralar institutuan eta Villabonako Ernioeoa institutuan ere ekin diote 2005-2006 ikasturteari. Normaltasunez ekin ere. Egun gutxian abian izango da kurtsoa Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikastetxe guztietan. Lana egiteko garaia da hemendik aurrerakoa. Batzuen zorionerako eta beste-en zoritxarrerako bukatu dira udako oporrak, izan ere.



Alegiako institutuan atzo hasi ziren. JULEN GOIKOETXEA



Tolosako Samaniego ikastetxean, atzo. IÑIGO ASENSIO



Villabonako Ernioeoa institutukoak, atzo. IMANOL GARCIA



Ibarra Uzturpe ikastolako ikasleak, gelan. I. GARCIA



Leitzako Haur Eskolan 40 haur hasi ziren atzo; besteak beste, gurasoekin jolasean aritu ziren. JAIONE ASTIBIA

TOLOSA ▶

Udaberriren 50. urteurrena prestatzeko bilera

Udaberri dantza taldeak jarraipena emango die asteleheneetik aurrera 50. urteurrena prestatzeko bilerei. Hala, egun horretan bertan, hilaren 12an, 20:30ean, egingo dute lehen batzarra Igarondo igerilekuaren alboko egoitzan, eta taldekideei eta taldekide ohiei egin diete gonbita hitzordura joan daitezen.

TOLOSA ▶

Liburuak eta bideoak, Haur Liburutegira

Haur liburutegiko erabiltzailei mailegutan hartutako liburuak eta bideoak Kultur Etxeko bulegora eramateko eskatu dute bertako arduradunek. Bestalde, eta Errotan izango duen kokapen berria zabaldu arte, urriaren hasiera arte, Haur Liburutegia itxita egongo dela argitu dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitz): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

JAIKAK ▶

Euriari, jai!

Elduainek, Lizartzak, Zizurkilek, Alkizak eta Bedaiok herriko festak izan zituzten atzokoan; azken hiruretan, ate joka dugun asteburu luzea aitzakiatzat hartuta, luzerako izango dute festarako aukera



Zizurkil. Gaztebo bat marrakdi lehiaketako erakusketari begira, atzo, Jose Arregi plazan. i. oteku

J. GOIKOETXEA - I. GARCIA

Abuztuan ez ezik irailan ere eskualdean izaten dira festak leku askotan. Atzokoan, esateko leku herritan izan zen festa giroa: Zizurkil, Lizartza, Elduain, Alkiza eta Bedaio. Euria azaldu zen gozontik, baina horiek ez zituen zapuztu ez leialdiak eta animoak ere. Bedaio-arrak, baina, harrituta ziren atzokoan: «Ez dugun gogoratzen festa egun bat euririk, zioen».

Zizurkilgo Jose Arregi plazan jarritako karpas negusiak ba-bestu zituzten haurrak euritik eta halentzako jarritako puzgarrietan jolastu ahal izan ziren goizean. Marrakdi lehiaketaren sari banaketa eta erakusketak ere egun zuten. Haurk izan ziren sariak: 0-4 urte bitartean: 1. Maite Beobide, 2. June Oria, 3. Telmo Civilo; 5-6 urte bitartean: 1. Nerea I. Ovanido, 2. June Gurrutaga, 3. Nora Atiaga; 7-9 urte bitartean: 1. Naiara Larranaga, 2. Beñat Madariaga, 3. Oihane Usabiaga eta 10-12 urte bitartean: 1. Kepa Aristi, 2. Irati Usandizaga, 3. Eneko Muiñagorri. Arratsaldean burubandien onenak Iker Leizaola eta Alberto Gomez munduko txapeladunak biko trial erakusketan egun zuten.

Alkizan atzo eman zieten hasiera jaiak eta eguerdian Udalak eskaintako bazkarian izan ziren jubilatuak eta Udaleko ordezkariak. Arratsaldean haurrentzako tertulia izan zen berarentzako jolasekin. Gausean, berriz, Alkizako webgunea aurkeztu zuten. www.alkiza.net eta ondoren bertso jaiak izan ziren.

Lizartzan, aldiz, atzokoarekin agurtu zituzten aurten goizko jaiak. Atzokoan protagonista izan ziren jubilatuak ahalik eta modurik onenean igaro zuten berarentzako eskainta egon chi den eguna. Goizean eman zioten hasiera egunari eta ondoren, eguerdian, Jose Mari jaietean bildu ziren guztiak bazkari eder bat egiteko.

Elduainen ere atzo amaitu ziren jaiak. Eguerdiko meza nagusiaren ondoren, herri bazkaria egun zuten. Arratsaldean, herri kirolen txanda izan zen. Alkizo harpularien erakustaldi bereziaren ondoren, Gorriti eta bere animaliak izan ziren jausgai. Bedaion, aldiz, atzokoan jaien lehen eguna izan zen. Eguerdiko hamaketakoa eta arratsaldeko pilota partidetan, gauko trikiti dotruak eman zieten segida. Igandera arte izango da bertan jai giroa.



Lizartza. Jubilatuak, atzo, Jose Mari jaietean egun zuten bazkarian. i. oteku



Alkiza. Jubilatuak eta Udaleko ordezkariak, atzo, Otsamendi jaietean. i. oteku



Elduain. Alkizo harpularien erakustaldi berezia eskaintu zuten. i. oteku



Bedaio. Trikitilariek alaitu zuten Artubiri egindako hamaketakoa. i.c.

EGITARAUA ▶

Gaurko egunari begira, hainbat egitarauz gozatzeko aukera izango da jaietan diren herrietan. Zizurkil, esaterako, jaietako egun handia duela aitzakiatzat hartuz, ekitaldi bereko eguna antolatuta dute gozatzeko hasia. Baina Alkizan eta Bedaion ere izango da zer ikusi eta zer entzun gaur.

ZIZURKIL
Gaur, ostirala.
Aritzakuko Amaren eguna 11:30. Meza nagusia.
12:00. Sardinak eta sagardo distaleketa Urkamendi.
Elkartean eskutik.
12:30. Buruhandiak.
12:30. Jubilatuak antolatutako jolasak adin guztientzako: toka eta igela.

14:00. Jubilatuak bazkaria.
17:30. Aste karrera: hiru moztu onenei sari bakarrak.
19:00. Erromeria kalejira Villabona eta Zizurkilgo dantza taldeen eskutik. Ondoren, dantza taldeen emanaldia Jose Arregi Plazan.
21:30. Erromeri afaria.
Ondoren, Eresargi Tipi eta Bukiako Dantza Taldeko dantzarien emanaldia. Gero, Tapia eta Leturia.

ALKIZA
Gaur, ostirala.
11:00. Meza nagusia.
Ondoren, beterranen arteko XIV. Pilota Txapelketaren finalak.
16:00. Piboi tiraketa Ertiope elkartek antolatutako, bazkide eta herritarrentzat.

17:00. Gorriti bere animaliekin. Ondoren, toka bazpelleta herrikoa.
21:00. Herri afaria Ostuata jaietean. Ondoren, erromeria Etxabe anaienkin.

BEDAIO
Gaur, ostirala.
18:00. Arkaitz dantza taldea. Ondoren, Zaharjardoa.
00:00. Toka bazpelleta. Ondoren, Epelide eta Larranaga trikitilarienkin dantza, gozaldierare.

NEREANE
lentzeria
Ondo pasa jaietan!
Tel: 943 69 15 64
Ermo. Idoe. 12 • ZIZURKIL

Jai Zoriontsuak izan!
Ermo. Idoe. 25. Pabonaga 35. Pabonaga. Pabonaga 81. ZIZURKIL
Tel: 943 69 41 41 • Fax: 943 69 41 02

GARAJE EXiN
Ondo pasa jaiak
Etxarrena auzoa, 15. poligonoa
Tel-Fax: 943 69 26 84
ZIZURKIL

AURRERA
taberna
Tel: 943 69 37 32 • ZIZURKIL

Egarrri
ERNOBIDEA 7 • ZIZURKIL • Tel: 943 69 62 57

ATXULONDO

Teodosio taberna
Joxe Arregi plaza • Zizurkil
Tel: 943 69 34 23

muskil
Erriobeia, 5 • Zizurkil

ZIZURKILGO JAIETAN ERE ZUEN ARTEAN! ONDO PASA JAIKAK!

ZIZURKILGO UDALA
Gara Zizurkilgo jaiak
Zorionak eta ondo pasal
Tel: 943 69 12 12 • Teodosio Herrikoak, 6 • 30196 Zizurkil
www.zizurkil.com

ALKIZAKO UDALA
FESTAK ONDO IGAROTZEA Festa Batzordea
OPA DIZUE HERRIKO GUZTIEI
ETA ETOKA ZURETAN
Tel: 943 69 15 64 • Fax: 943 69 41 02

TOLOSA ▶ AZPIEGITURAK

Tolargiko argindar eraldaketarako subestazioa, martxan

Bi transformagailu ditu San Esteban auzoan kokatzen den eraikuntza berriak; 30.000 KW 13.000-ra murrizten ditu



Industriarako eta, aldi berean, bizilekurako tankera eman nahi izan diote eraikuntza berriari. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Dagoeneko martxan jarri dute San Esteban auzoan kokatzen den Tolargiko argindar eraldaketarako subestazio berria. Tolargi enpresak —«Espainian argia eta gasa kudeatzen dituen enpresa bakarrik»—

1.497.000 euroko aurrekontua erabili du proiektua aurrera atera ahal izateko. Udal ordezkariak zein bertan lanean aritu diren arduradunak «pozik» agertu dira lortutako emaitzarekin.

Eraikuntza berriak energia elektrikoa eraldatzen duten bi

transformagailu ditu, 30.000 KW 13.000 KW-ra murrizten dutenak. Ondoren, bertan eraldaturiko energiarekin —Iberdrolako lurpeko pasabideez hornitua— herrian zehar dauden eta energia etxeetara bideratuko duten puntuak hornitzen ditu. Hau guztia ordena-



Eraikuntza barruko bi transformagailuetariko bat. NOELIA LATABURU

gailu zentralera dago lotuta, zeinetik mugimendu guztiak kontrolatzen diren. Atzo aurrez zuten jendaurrean eraikuntza berria obrako ardura eta Angel Mangasek; bertan izan ziren, halaber, Tolargiko eta Udaleko ordezkariak.

Eraikuntza «moderno»

Ingurura eta egungo garaietara egokitutako eraikuntza sortu nahi izan dute arduradunek, Jose Mari Aseginolazak azaldu zuenez. Horrela, «praktikotasuna eta modernitatea» uztartu dute kalitateko instalakuntzak lortzeko. Solairu bakarre-

ko eraikuntza da Tolargiko argindar eraldaketarako subestazioa, makinariarako nabe bat eta transformagailuentzako hiru atal banatzen dituena. Bulegoetarako eta ordenagailu zentralerako tartea ere badu. Eraikuntza osoan garrantzia berezia eman diote «egun argia egoki sartzeari». Horrela, hormigoia, zinka eta beira izan dira erabilitako materialak. Bestalde, aireztatze eta sute sistema bereziak ezarri dituzte; lehenak aireztatze bikoitza du, bigarrenak, berriak, automatikoki antzematen ditu eraikuntzaren barnean piztu daitezkeen suak edo keak, bai eta automatikoki itzali ere.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Berrikuntzak. Webgune berria dagoeneko martxan da, eta berrikuntza handienetakoa irakurleek bertan parte hartzeko aukera gehiago dituela da: albisteen gaineko iritzia eman, inguruko albisteen berri emateko aukera... Garrantzitsuak dira zuen iritzia, eta ongi etorriak izango dira.



Eguneko irudia. HITZA

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Elikagaien X. Azoka Berezia egingo dute bihar

Irrintzi Elkarteak antolatuta, 09:00etatik 14:00etara izango da Errebote plazan

ERREDAKZIOA

Bihar egingo dute, 09:00etatik 14:00etara, Elikagaien X. Azoka Berezia Errebote plazan. Irrintzi elkarteak antolatzen du azoka, Villabonako Udalaren laguntzarekin. Usadio bilakatu den azoka hau elkartearen urtemugak ospatzeko sortu zuten bazkideek hasiera batean. Aurtengoan 24. urteurrena dute Irrintzikoe.

Azokan 30 salmenta postu inguru bilduko dira, produktuak eskainiz; Iparraldetik, Nafarroatik, Bizkaitik, Arabatik, Gipuzkoatik eta Errioxatik (Espainia) etortzen dira gehien. Orotariko produktuak topa ahal izango dira bertan: ogiak,

pateak eta kontserbak, besteak besteak. Eskualdeko ordezkariak ere izango dira bertan: herriko Ogi goxo eta Labezain okindegiak, Asteasuko Sarasola eta Adunako Zabala sagardotegiak batera. Atunduriko postu politenei sariak banatuko zaizkie. Lehenengoari, 180 euro; bigarrenari, 120 euro eta 90 euro hirugarrenari. Halaber, urtean zehar Kultur Etxean egurrezko taila egiten dutenen eskulan erakusketak izango da, aurreko urteetan eskuraturiko arrakasta dela eta.

Isats lehiaketa ere bihar

Elikagaien azokarekin batera, Tolosaldeko elkartearen arteko

XI. isats gisatuaren lehiaketa ere egingo dute biharkoan. Epaimahaikideek diotenez, urtetik urtera lehiaketako mailak gora egin du nabarmen, eta geroz eta zailagoa da erabakia hartzea. Horretarako sukaldariz osatutako epaimahaia Irrintzi-n bilduko da 12:00ak aldeira, aurrez zutako plater guztiak dastatu eta bozkatzeko.

Hauek izango dira bihar parte hartuko duten elkarteak: Villabonako Zunbeltz, Behar-Zana eta Irrintzi; Amasako Uxo-toki; Zizurkilgo Ibaieritz eta Urkamendi; Adunako Txulobi; Asteasuko Aitzondo eta Santamaña; eta Larraulgo Katilutxulo.

Isats gisatu onenaren ira-

bazlearek Irrintzi elkarteko ikurra eta kazuela sorta bat oparitu diote. Azokak zein lehiaketak jende mordoa erakartzen dute herrira eta antolatzaileek aurtengoan ere bisitari kopuruak bere horretan jarraitzea espero dute.

Behin isats gisatuaren lehiaketa eta elikagaien azoka amaituta, bazkari legea egingo dute, elkarte bertan, azokako saltailek, Villabonako Udaleko ordezkari batzuk eta Irrintzi elkartekoek. Ondoren, egitarau ofizialaren barruan ez badago ere, mus txapelketa jokatuko dute. Guztira, 12 bikote inguru ariko dira jokoan, eta ez dute zertan elkarte berekoak izan beharrik.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Larunbatero, denetariko jarduerak Ateka Beltzan

Gazte Asanbladak «jende guztiari» ireki eta erakutsi nahi dizkio bere asmoak

JAIONE ASTIBIA

Lehengo larunbatean hasi ziren eta aurrerantzekoetan martxa berarekin. «ahal bada hobetuz», ziotenez, jarraituko dute gazteek, Ateka Beltzan jarduera desberdinak antolatzeko eta egiten.

Leitzako Ateka Beltz Gazte-txean iraileko egitarauari ekin berri diote, eta «aurrerantzean ere, hilero-hilero prestatuko dugu», azaldu zuten. «Herri guztiari, eta batez ere gazte guztiei, zertan ari garen erakutsi nahi diegu eta jendea honera erakarri nahi dugu. Horrela, bide egokia iruditu zaigu, bertan ekintza desberdinak prestatzea, jendea lasai hurbildu eta lekua ezagutzera emateko», zioten. «Erreparoa alde batera utzi» eta antolatutako gauzetan parte hartzeko dei zabaldu egin zuten: «Etorri, ikusi, eta ziur norberak denbora zertan pasatua aurkitu duela».

Horrela, jardunari ekin diote gazteek eta lehen urratsak



Aurreko larunbatean mus txapelketa egin zuten. ATEKABELTZ GAZTEKETA

ematen hasiak dira. Lehengo larunbatean mus txapelketa antolatu zuten, eta aditzera eman zuten, 14 bikotek parte hartu zuten. «Oso giro polita izan zen; adin desberdinetako jendea nahasita ikustea-eta», azaldu zuten. Eta ekintza hark bihar 18:30ean izanen du jarraipena, masaje tailerrarekin:

erromero-olioa prest dute dagonetik eta erakusle aditua izanen dute. Hori bai, bakoitzak bere eskuoihala eta esterila ekartzeko eskaera egin dute.

Eta hurrengoan, eta bestean... jarraipena izanen du. Prest dute eta daude. Halaxe adierazi zioten HITZARI gazteek: «Gazte-txean egoten garenak

EGITARAUA ▶

IRAILAK 10
18:30. Masaje tailerra.

IRAILAK 17
12:00. Patata tortila leihaketa.
14:00. Bazkaria.

IRAILAK 24
19:00. Diapositibak.
21:00. Afari autogestionatua.
Ondoren. Musika.

lagun mordoska bagara, eta denak ari gara lanean». Astean behin egiten omen dituzte bilerrak, «taldeko arauak-eta erabakitzeko eta jarraitzeko; eta orain arte, iraileko egitaraua prestatzen aritu gara», zehaztu zuten. «Bestalde, herriko gainerako eragileekin egiten ari garen bileretarako ere gure proposamenak hitz egin eta plazaratu ditugu», gaineratu zuten. «Jendea gauzak egiteko gogotsu dago», zioten.

LEITZA ▶

Igerilekuan musean aritzeko aukera gaur

Gaur arratsaldean, 18:00etatik aurrera, Leitzako Udala Igerilekuan mus txapelketa egiten dute. Bertan parte hartu nahi duten bikoteek izena bere hartan eman dezaketela aitatu dute antolatzailerak, bikoteko 4 euro ordainduz. Noski, sariak izanen omen dira: «Aurreneko lau bikoteek jasoko dute saria: 1. postukoek, 4 txuleta eta 2 txanpain botila; 2. leku-koek, 2 txuleta eta sagardoa; 3. ek. txistorra eta sagardoa; eta 4.ek, 2 gazta». Bertako arduradunen hitzetan, «uda guztiari zehar aritu dira beren kabuz hainbat eta hainbat. Horiei eskertzeko modu bat da», argitu nahi izan dute.

AMEZKETA ▶

XVI. Joxean Tolosa Txapelketako finalerdiak gaur

Gaur gauean, Larrunarri pilotalekuan, 22:00etatik aurrera jokatuko dituzte XVI. Joxean Tolosa Pilotari Txapelketan maila batzuetako finalerdiak. Horrela, kadeteen mailan, bi partidu ikusteko aukera izanen dute: Peñas eta Mitxelenaren artekoa, bata, Iturrioz eta Saez de As-teasuren artekoa bestea; helduen mailan, berriz, bakarria izanen da jokoan, Jauregi eta Baez I.aren artekoa.

iragarki laburrak ▶

LANA

Eskaintza. Informaek dituen eskarmentu handiko 34 urteko emakumea eskaintzen da, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 686 66 82 91.

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapenak egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 691 933ra.

Arotza. Arotzeria metalikoko muntatzaile batek ikastuna behar du. 665 70 09 79ra deitu.

GALDUTAKOAK

Zakurra. Igandean Oreskoko Basabe erreka ondoan ardi zakurra azaldu zen. Ille zurikoa. Galdutuenak dei dezala 943 682 214 zenbakira.

SALGAI

Kotxea. Citroen Berlingo markako autoa salgai. 1998koa. Diesela. Egoera onean. Deitu 650 32 45 06ra.

TOLOSALDEA ▶ GIZARTEA



Laster elkar ikusteko itxaropenarekin, ume sahararrei agur

Leire Montes ▶ Bi hilabete Tolosaldeko familiekin bizi eta gero, atzo hartu zuten etxera eramango zituen hegazkina haur sahararrek. Hamahiru umek igaro dute uda eskualdean, eta horietako sei itzuli ziren atzo Saharara; beste zazpiak bihar, larunbata, abiatuko dira. Joan den larunbatean egin zieten agur festa senideek eta la-

gunek, Tolosako Plaza Berrian. Eta atzo ere familia eta adiskide asko bildu zen umeak agurtzera. «Haiek ez daude hain triste, baina guk negar saio bat baino gehiago egingo dugu gaur», zioten haurrak hartu dituzten familietako kideek, malkoei eutsi ezinik. Laster elkar ikusiko duten itxaropena ez dute galdutako nahi. L. MONTES



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Izaskun izena dutenen arteko bazkaria, hilaren 18an. Izena eman nahi duenak Izaskungo Izaskun jatexera edo 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu behar du (goizez), hilaren 15a baino lehen.

Lizartza. Hilaren 16an Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak. Sarrerak salgai, 5 euroren truke, egoitzan eta Udalean.

Tolosa. Iturriza jubilatuta elkarteak irteera antolatu du San Migelera hilaren 29an. Izen-ematea, elkartean.

Tolosa. Irazki Tolosaldeko elkarte kulturantzak hilaren 24an ekingo die euskara klaseei. Haurrentzat eta helduentzat izango dira eskolak. Izena eman nahi duenak 678 63 83 94 telefono zenbakira deitu behar du.

Tolosa. Aitzol udal euskaltegiak zabali du matrikula epea, hilaren 20a bitarte. Izen-ematea 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, euskaltegian bertan.

Tolosa. 1955ean jaiotako eta aurten 50 urte betetzen dituztenen festa ari dira prestatzen. Azaroaren 12an izango da. Informazioa 650 69 35 40 (Santi Belloso), 630 90 80 45 (Joaquin Odriozola) eta 669 82 88 18 (Angel Garcia) telefono zenbakietan. 75 euro sartu behar dira Kutxako kontu korronte honetan: 2101 0152 68 0125058396.

ERAKUSKETAK

Alegia. Murtxe Etxeberriaren margolanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.

Tolosa. Rosa Maria Ruiz margolanak ikusgai daude egunotan Sorron enmarkazio dendan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Ollareaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Italiatik dator notizia

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Airetik ateratako irudiak argitaratu ditugu gaur: hegazkin batetik lehena, hormetatik zintzilik bigarrena; biak Italiakoak



'EGIN HEGAN!' ▶

Iker Pagola Jauregi (Ibarra).


Oporretan Italiara joateko hartutako hegazkinetik atera zuten Iker Pagolak eta bere lagunak honako irudia. Hauxe dio ibartarrak:

«3+1 Italiara joan ginenean hartutako argazkia da. Argazki honek abeslari batek esaten dituen hitzak gogorazari dizkigu: 'Txoriak bezala egin dezagun hegan, inork inoiz harrika joko ez gaituen altura lortu dezagula'. Zeruan hauskor gara hain ziur, baina hain hauskor!».

ZINTZILIK ▶

Xanti Aparicio (Alegia).

Argazki hau ere Italian jasotakoa da. Alegiako koadrila batek igaro ditu han bere opor egun batzuk, naturaz eta paraje ederretaz gozaten. Xanti Apariciok azaldu digunez, «Gran Paradis Parke Naturelean atera genuen irudi hau, Italiako Valle da Aostan».



AGURRAK ▶



ZORIONAK
Laia Ruiz de Eguilaz Ayensa
(Tolosa). Gaur 7 urte. Muxu handi bat familia guztiazen partetik.

HITZA, zorion agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA • Udaletzeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!